

MITOLOGIA ETA MITOAK

Mitologia

- mitoen bilduma
- mitoak ikertzen dituen diziplina

Mittoa

- Definizio adosturik edo asegarririk ez da
- Hiztegi orokorretan diren definizioetarik hau doakio mitologiari : “Dibinitate eta heroien kondaira...”
- Ez doakio hau: “Oinarririk ez duen uste edo ideia...”
- Mitoak kondairak dira

MITOEN EZAUGARRI BATZUK

- Ez dituzte gertakari arruntak kontatzen, baizik eta miresgarriak, mirakuluzkoak
- Kolektiboki sinetsiak dira
- Iraganean kontatzen dira (iragan urrun zein aski hurbil)
- Leku zehatz batean kokatu ohi dira (mendi, harpe, erreka, etxe...)
- Euskal mitoek izaki mitikoen arteko harremanak baino gehiago...
- ...izaki mitiko eta jendeen arteko harremanak kontatzen dituzte
- Mesfidantza eta borroka harremanak, gehienetan...
- ...eta anitzetan amaiera gazi-geza

IPUINAK ETA MITOAK

- Ipuin miresgarriek badute zerikusia mitoekin, haietatik datoz, menturaz
- Ipuinak ez dira sinesten

MITOLOGIA ETA ERLIGIOA

- Erligioa: ideia eta praktika kolektiboen sistema organikoa, aitortzen dituen izaki sakratuei dagokiona
- Mitologia erligioaren parte garrantzitsua, sineste eta erritoak justifikatzen ditu, haien transmisioa bermatzen
- Gure ingurugiroan, kristianismoari aitortu zaio erligio maila...
- ...eta mitologia deitzen zaie baztertuak diren sistemai, antzinatekoei, exotiko zaizkigunei...
- Hemen hautematen den erligio paganoari (mito, errito, sineste) mitologia deitzen diogu